

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideiaren balorezko proposamena ulertzeko, ezinbestekoa da hasieran gizarteari zuzenduta dagoen gure proposamena ongi definitzea. Funtsean gure ideia, alkohola eta bestelakoak detektatzen dituen gailua, hasiera batean gidari profesionalen garraioetan txertatzea da, eta honela ibilgailu hauek arrankatzeko, putz eginda egiten den analisisan negatibo eman beharko da. Honek gidari profesionalen artean arrakasta edukiko balu, beste edozein ibilgailuetan jartzeko proposamena ere egingo genuke.

Gure ideia, gizartearentzat berrikuntza izango litzateke, oraindik merkatuan ez dagoen produktua asmatu baitugu. Lehen aipatu bezala, alkohola eta bestelakoak detektatzeko tramankulua jartzea gidari profesionalen garraioetan da. Horrez gain, gizarteari segurtasuna bermatuko lioke, bai gidariari eta baita beste guztioi ere, izan ere, gidaria garraiatzeko kondizioetan ez egoteko kasuan, gailu honek ez lioke utziko ibilgailua martxan jartzen.

Hori gutxi balitz bezala, istripuak ekiditeak gizarteari ekarpen oso positiboa egingo lioke. Espainiako datuei erreparatuz gero, 2023an 42 kamioi gidari hil ziren guztira, lanean ari ziren bitartean, hots, datuak ikaragarriak dira eta goruntz doaz. Gainera, alkoholaren kontrolean positiboa ematen duten pertsonen dagokienez, ibilgailu ohikoen datuak ere oso handiak dira eta kezkarriak: 79.000 pertsona hiltzen dira urtean gure herrialdean.



Gure aparatu hau oso erabilerraza kontsideratzen dugu, inolako zailtasunik ez duelako, denok garelako gai putz egiteko edozein egoeratan. Horrez gain, tamainari dagokionez, txikia denez, lanorduetan gidariari ez dio inolako enbarazurik egingo. Intuitiboa ere badela esan dezakegu, gizartean jada tresna antzekoak presente baititugu eta ia denok badakizkigulako honelakoak nola erabili. Horren harira, oso iraunkorra da, izan ere, ez da beharrik egongo denbora jakin batean aldatzeko edota berrikuntzarik egiteko, hau da, duen mekanismoa iraunkorra izateko pentsatua eta kalitatezkoa da.

Aurrez aipatutako arrazoi guzti hauengatik, hau da, ideia berritzailea eta segurtasuna bermatuko duena denez, esan dezakegu beste enpresek dituzten ideiekiko desberdintzen gabela eta hortaz, bezeroak interesatuak egongo direla deritzogu. Orokorrean beraiek bilatzen duten zerbitzua edo konponbidea eskaintzen dugu eta. Beraz, merkatuari egindako gure ekarpena kualitatiboa dela esan dezakegu.

Laburbilduz, eta hau guztia aipatu ondoren, gure helburu nagusia, urteko hildakoen eta zaurituen kopurua garraio istripuetan guztiz edo ia guztiz murriztea da, hilketa bat ere jasanezina izan beharko litzateke eta, gaur egun, zoritxarrez, datu altuetara ohitu bagara ere.